

Mikel Atxaga gogoan

Joxemari IRIONDO

Hiru egun lehenago hitz egin nuen bere emazte Maria Anjele-sekin, hurrengo egunean bisitatu nahi nuela esateko deituta. Baina, "Oso pattal dago, ba; uztazu beste egun baterako" eskatu zidan. Eta nik esandakoa egin, berriz ere hitz-aspertu eder bat egiteko aukera izango genuen esperantzaz.

Baina, goizean egunerokoan begiratzen hasi eta, zapla!, Mikel Atxagaren eskela irakurri nuen goiz hartan. Eta berehalaxe, lagun batek telefonoz dei egin zidan, eta "Mikel ere joan zaiguk, ba" esan, triste. Ezin izan nien malkoei eutsi, eta negar egin nuen, lagun onen heriotzean negar egitea ez dela lotsa pentsatuta. Eta bat-batean, joan zaidan lagun zahar askoren irudia etorri zitzaidan burura: Antonio Zavalarena, Joxe Lizasorena, Jesus Egileorrena, Joxe Mari Aranalderena, Joan Mari Lekuonarena, Alfontso Irigoienena... Hainbat eta hainbat lagunena.

Azkenengo bisitaldia

Banuen honelako albiste txarra edozein momentutan izan zitekeen susmo txarra. Izan ere, azkenengoz ikusi nuenean, oso eroria eta ahuldua ikusi bainuen Mikel, ohean erdi lotan. Hitz egin genuen, bai, baina besteetako umore eta hitz-etorri ederrik gabe zegoen, irribarrerik gabe. Eta ahuldua eta nekatuta zegoela ohartuta, "Hurrengo astean etorriko nauk berriz ere, Mikel, eta bizkortu kafe bat hartzera irteteko moduan. Orain egik lo lasai", esan nion borondaterik onenaz.

Baina ondo ohartu nintzan, bai, ez nuela askotan bisitatuko nere lagun zaharra; eta haren emazteak ateraino lagundu eta nola ikusi nuen galdetu zidanean, gezurrik esan nahi ez eta ikaragarri kaxtatuta ikusi nuela esan nion. Gogorra egin zitzaidan, baina nahiago nuen egia gordina esatea. Ezin nezaiokeen besterik esan, begien aurrean zegoen-eta Mikel ez zela betiko Mikel.

Itxaro Bethart, Joakin Berasategi eta hirurok ginen bisitaldi hartan. Baina haiek, batek ez zuen izan kuraiarik Mikel ikusteko, eta besteak ere ez hitz egiteko. Momentu gogorra izan zen hura!

Mikelekin harremanak

Lehen ere askotan esan izan dut noiz eta nola hasi ziren gure arteko harremanak. Gaztetxoentzat egiten zituzten liburuxka batzutatik izan nuen Mikel Atxagaren lehenengo ezagutzea. Eta gero, 1965eko maiatzeko Santakutz jaietan Aizarnan egin ohi zuten *Gaztedi Egun* hartan hitz egin nuen lehenengo aldiz harekin, bere herritar Lourdes Iriondo eramana bait zuten egun hartan kantatzeko –jaila antolatzeke diruz urri samar izan nonbait gazteak, eta ahalik modurik onenekoa nahi ba–. Eta kantaldia amaitzean ezpainak gozo miazkatuta aldegin genuen Aizarna aldetik (Mikelen arreba sukaldari bikaina bait zen oso).

Arratsalde-ilunabar gozoa eta atsegina izan zen maiatzeko hura xe. Hartaz eta hontaz hitz egin genuen, behin sabela hala berdinduz gero erraza izaten da-ta hori. Lourdes gurera eramana, eta hurrengo egunean, astelehenez egin nizekioan lehenengo grabaketak ofizio horretan artean ezagutzen ez nuen gure lehengusuari –Hura zoriona niretzat, eta hura iturri ederra irratirako!–.

Geroztik, berriz, etenik gabe jarraitu zuen gure arteko harremanak. Inoiz pilotan ere neurtu ginen, eta nekez ahaztuko dut Joxe Mari Aranalde adiskidearekin batera Zarauzko pilota partida hartan eman ziguten egurra Xabier Lete biori. Baina zorrak kitatzen saiatu ginen gero Getariako arrain usain ederren artean.

Hamailka kafe eder ere hartu genuen elkarrekin (Mikelek beti Farias xahar bat errez) Donostian egiten genituen bilera luze haietan. Hitz-aspertu ederrak egin ere mundu xahar hau geure modura

konponduz, beti ere, ibarreko etxean zein zoriontsu ginen eta "lo pez que estaba la cosa hoy en Euskadi" kexuz, gauzak geroz okertzena-go zihoztela-ta. Baina azkenean, "Zer egingo diagu, ba?" esanda kontsolatzen ginen, eta hurrengo bat arte elkar agurtu.

"Mikel Atxaga bidegilea" liburua aurkeztuz Donostiako Miramarren egin zen omenaldi gozo hartan negar egiten ikusi nuen Mikel; eta "hau dek mixeria, hau, zeharo maxkaldu naizelako edo, ezin malkoiei eutsil!" kejatzen zen. Ordura arte ez nuen hala ikusi inoiz, eta han bai, han erraz egiten zuen negar, ez dakit pozez ala nahigabez.

Mikel Atxagarekin izan dudan harremanetan, zera esan dezaket ozenki eta gora: Nik hari eskatu izan nizkion mesedeetan berriketarik gabe erantzun izan zidala beti, eta neuk ere beste horrenbeste egin nahi izan niola, maitasuna maitasunez ordaintzen dela gogoan.

Mikelek emandako azkenengo mandatua betetzear daukat, lehen ere inoiz esana dudanez. Antonio Zavalaren *Bidegileak* azkar prestatzeko eskatu zidan, eta hortan aritu naiz buru-bihotz, ahal dudan bezala. Baina non eta nola moztu/luzatu kontsulta egiteko lagun egoki baten hutsunea nabaitzen dut orain neurebaitan. Mikelekin erraz luzatu/mozten bait ziren holakoak.

Mikel maisu ona

Bai, maisu ona zen Mikel niretzat. Idazle fina, eta eskola zaharreko kazetaria "tituluz ez baina ofizioz", behin batean Gipuzkoako kazetari jauntxo bati erantzunez esan zuen bezala, aspaldiko "quod natura non dat..." hura gogoratuz edo. Bere luma zorrotz eta egoki erabiltzen zekien, zuriari zuria eta beltza esanez argi eta garbi.

Begirune haundiz eta ikasteko gogoz biziz irakurri izan ditut beti haren idatziak, eta haren esateko modua miretsi –norbaitek pentsa lezake "hil da gero salda bero" ari naizela, baina berak ere bazekien hola pentsatzen nuela–. Ez dakit zenbatek hartu izan duten eredutzat, baina ez zen maisu txarra, ez. *Deia* egunkarian, edota lehenago *Argia* astekarian idatzitako haren dozenaka artikulutan argimutil ona izan zen Mikel –gaur egun *Mikel Atxaga bidegilea* (Eusko Jaurilaritza, Elixabete Garmendia) liburuan irakur daitezke–.

Goraintzi goiko jende horri

Mikel hil eta hurrengo egunean, "Goiko jende horri goraintziak ematzkiok" eskatu nion, nire lagun zahar guztiekin gogoratuta. Aizar-nan bildu gintuen Lourdes Iriondo, Joxemari Aranalde, Joan Mari Lekuona, Antonio Zavala, Xalbador, Joxe Lizaso eta horiek denak aipatu nituen, berriz ez ditudala ikusiko sinestu nahi ezta. Eta "ikus-ten badituk, esaiak hala-hola, baina hementxe gabiltzala behitzak mundu koskor honetan" erantsi nion. Orain ere eskabide berdina egiten jarraitzen diot, benetako lagunak ez baitira ahazten hori eta horrenbestez.

Eta Mikelen alargun Maria Anjelesi eta familiari, berriz, nire dolu-mina eta maitasun-agiri zintzoa bidali nahi diet behin eta berriz.

Joxemari Iriondo
2009ko urria